

# Getxo >MEETING<

GetxoMeeting. urriaren 19an.  
**Zure negozioan aurrera egiteko galderak eta ideiak.**



Getxo Meetingeko saio guztiek helburu desberdina daukate; hori bai, gure enpresa abian jarri dugun guztion premia bereziei arreta emateko xedea dute. Hau da, ekintzaile eta enpresaburu guztiok dauzkagun beharrianak nahiz gure eguneroko bizitzako arlo profesionalari eragiten dioten gaiak jorratzen dira.

Aurreko saioaren ardatz nagusia ideiak ematea izan zen, eta kasu zehatz bakoitza aztertu zen, norberak behar zuena sakonki ikertuz.

Hori lortzeko, lehenik eta behin galderak egin genituen negozio bakoitzaren errealitatea ulertze aldera eta jakiteko zer alderatu behar zen, edo ideiak eta inspirazioa behar zuten gaiak zehazteko. Poster batean idatzi genuen dena, gainerako parte-hartzaileek galdera irekiak egin eta euren ikuspuntua adierazi ahal izateko ondoren. Bereziki, “ilargiaren aurpegi iluna” bistaratu nahi zen, hots, agian gainerakoentzat argiak diren eta norberak oraindik bere negozioarako pentsatu ez dituen alderdiak. Halaber, interesgarria izan zen negozio guztiek “bitamina-ekarpena” jasotzeko; izan ere, taldeak oso modu aktiboan hartu zuen parte eta dena eman zuen ia parte-hartzaile bakoitzarekin.

Horrela, parekoen arteko aholkularitza azkarra (eta, aldi berean, sakona) izan zen saioa: bakoitzak bere poster erraldoia eraman zuen etxera, jasotako ideiak biltzen zituena, baita aurrerapausoak egiteko motibazioa ere.

Galderak eta gogoetak egin zituzten salmentan hartu beharreko jarrerari eta aurrera egiteko ekintza jakinen gaineko laguntzari buruz. Hori guztia enpresa-estrategiaren ikuspuntutik\*

*\*Enpresa-estrategiari buruz ari garenean, ez ditugu bereizten enpresaren tamaina, ibilbidea nahiz fakturazioa. Berdin dio ekintzailetzaren bidean ze puntutan dagoen bakoitza. Ardura duena hauxe da: etorkizunean*

*desberdintasuna sortuko duena adieraztea. Gaur jorratu beharreko gaiak etorkizunean hobekuntza nabarmena eragingo dutenak dira.*

Horretarako, garrantzi bera dauka jakiteak zer egin behar den eta zer ez. Sarritan, beste pertsona batzuek proposatzen dituzten konponbideak ekintzaileak jada sumatu zituenak dira. Horrek “norberaren irizpideak berrestearen” sentsazioa sortzen du eta, aldi berean, abian jartzen laguntzen du, ondo egiten ari denaren konfiantza duelako.

Ez da ahaztu behar GetxoMeetingen helburuetako bat babesa ematea dela, konponbideak sortu, ideien gainera *feedback*-a eskuratu eta modu naturalean laguntzea mesedetzen duen konfiantzazko giroa sortze aldera.

Hurrengora apuntatuko zara? Badakizu, edozein bide miatu ahal izateko, lehenengo pausoa eman beharra dago.

Hurrengo Getxo Meetingera etor zaitez, Getxo Elkartegian. Azaroaren 2an izango da, 14:30etatik 16:30etara (ordutegi berezia).

Bi ostegunetik behin egiten dira saioak, eta beharrezkoa da saio bakoitzerako izena ematea aldeztuz.

Honela egin dezakezu:

- Mezu elektronikoa bat idatziz hona: [getxopro@getxo.eus](mailto:getxopro@getxo.eus)
- Telefono-zenbaki honetara deituz: 944660140
- Getxolanen bulegoetan: Getxo Elkartegia. Ogoño kalea, 1, 48930 Areeta

Zeren zain zaude?